

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2010	R2/2011	2011/01/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza. Administrazio sustatzaileak atzera egitea

**Ebazpena: R 2/2011**

**Espedientea: 14/2010**

Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 20an

Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidenteak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese kideek osatzen dutenak, erabaki hau hartu du

## ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak estatuko administrazioaren aurrean planteatu duen eskumen-gatazkari buruz. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, ENTIDAD 1 S.L. (IFZ XXXX) erakundearen zerga-egoitza ez zegoen Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2007ko abuztuaren 10etik. Eskumen-gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 14/2010 espediente-zenbakiarekin.

## I.- AURREKARIAK

1. Eskumen-gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak planteatu zuen, 2010eko maiatzaren 3ko idazki bidez. Arbitraje Batzorde honetan 2010eko maiatzaren 7an sartu zen idazki hori.
2. 2011ko urtarrilaren 10ean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendariak erabaki hau hartu zuen:

*“Primero.- Desistir del conflicto interpuesto el pasado 3 de mayo de 2010 por la Diputación Foral de Bizkaia con la Agencia Estatal de Administración Tributaria ante*

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2010	R2/2011	2011/01/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Persona juridikoen zerga-egoitza. Administrazio sustatzaileak atzera egitea

*la Junta Arbitral prevista en los artículos 65 y siguientes del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por medio de Ley 12/2002, de 23 de mayo, en relación con la rectificación del domicilio fiscal de la entidad ENTIDAD 1 S.L. con NIF XXXX), al aparecer nuevos elementos probatorios que indican que el domicilio fiscal de la entidad estaba correctamente fijado en el Territorio Histórico de Bizkaia.*

*Segundo.- El presente acuerdo se notificará al Servicio de Política Fiscal para su traslado al Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco y a la Junta Arbitral prevista en el Concierto Económico, al Ilmo. Sr. Director General de la Agencia Estatal de Administración Tributaria y al obligado tributario a los efectos legales correspondientes, y será objeto de comunicación al Ilmo. Sr. Delegado Especial en el País Vasco de la Agencia Estatal de Administración Tributaria y a los Sres. Subdirectores de Gestión Tributaria y de Inspección para su conocimiento y para que lo lleven a efecto.”*

3. Arbitraje Batzorde honetan urtarrilaren 14an sartu zen 2011ko urtarrilaren 13ko idazki bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Politikako Zerbitzuko buruak Batzorde honi jakinarazi zion aurretik hitzez hitz jaso den erabakia.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudiko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera (araudia abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen), «*Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpen hartzeari, funtzionamenduko araubideari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio (...)*».

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/199 Legearen 91. artikuluko 2. atalean xedatzen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2010	R2/2011	2011/01/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza. Administrazio sustatzaileak atzera egitea

denez, «*Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek*».

Hori dela bide, Arbitraje Batzordeak hau

### ERABAKITZEN DU

1º. Bizkaiko Foru Aldundiak atzera egitea onartzea, administrazio horrek estatuko administrazioaren aurrean planteatu duen eskumen-gatazkari dagokionez. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, ENTIDAD 1 S.L. (IFZ XXXX) erakundearen zerga-egoitza ez zegoen Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2007ko abuztuaren 10etik. Eskumen-gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 14/2010 espediente-zenbakiarekin.

2º. Egintzak amaitutzat jotzeko eta artxibatzeko agintzea, baita helburu horretarako bidali den dokumentazio guztia itzultzeko ere.

3º. Erabaki hau erakunde eskatzaileari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.